

ERREPORTAJEA:

## **Haur Eskolak: zaindu baino, hezitu**

**Apirilaren 28tik maiatzaren 5a bitarte, beste 49 kideekin batera, Izaskun Madariaga Finlandian egon da bertako Haur Hezkuntza zentroak ikusten eta bertako administrazioaren funtzionamendua eta zerbitzuak bertatik bertara ezagutzeko helburuarekin. Ez du hau lehenengo bidaia, eta haurren hezkuntzan duen ezagutzarako beste urrats bat izan bada ere, esperientzia handiko emakumea dugu Izaskun. Berekin egon gara Finlandiako berri jakiteko, baina askoz ere informazio gehiago eman digu gai honen inguruan.**

1977an Oiartzungo lehendabiziko Haur Eskola sortzeko lan taldeko partaidea izan zen Izaskun Madariaga. Gaur egun, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko ikasketa burua da. Bestalde helduen mailan ere aritzen da irakasle modura. Mondragon Unibertsitateko Magisteritza eskolako irakasle da eta Haur Hezkuntzako irakasleen formazioa ematen eten gabe aritzen dena da. Artikulu asko idatzi ditu eta hitzaldiak eman ere bai, beti gai beraren inguruan: haur txikien heziketa. Aldizkari pedagogiko desberdinetako partaide da: Euskal herri mailan *Hik hasi* aldizkarikoa eta estatu mailan “*In-fan-cia*, educar 0-6” aldizkarikoa.

Hain zuzen, Rosa Sensat Fundazioak argitaratzen duen ‘Infancia’ aldizkari honek antolatzen dituen bidaietan partaide izaten da. Aurten Finlandian egon den bezala, bi aldiz egon da Italian, bitan ere Katalunian, eta beste behin, Suedian, Montevideon eta Brasilen.

Bidaia hauek bi helburu dituzte: bata, pedagogikoa, bertako eskolak bisitatuz. Eta tokian tokiko administrazioaren planteamendua ezagutzea, bestetik.

## **Finlandia eta Oiartzun**

Finlandian egon den egun horietan, administrazioa hemen baino aurreratuagoa dagoela nabarmendu digu Izaskunek, zerbitzuen eskaintzari dagokionez, behintzat. Halere, haurrei egiten zaizkien proposamenetan, gauza berri gehiegirik ez du ikusi, beste gizarte mota eta beste kultura bai, baina Oiartzunen egiten den planteamendu pedagogikoari eransteko, gutxi. Oiartzungo haur eskolan txikiei eskainitako proposata gehiago dituztela aipatu zuen. Finlandiarekin konparatuta, hemengo curriculumean eduki mota gehiago daudela han baino.

Finlandian bi herri bisitatu zituzten, Tampere (200.000 biztanleko herria) eta Helsinki (500.000 biztanle ingurukoa). Finlandian, derrigorrezko hezkuntza 7 urtetik hasten da, baina bitartean mota askotako zerbitzuak dituzte. Denak zerbitzu publikoak dira: haur eskolak, orduko zerbitzuak, familietan antolatzen dituztenak, haur parkeak, ludotekak... Beraien helburua familiari ahal den zerbitzu zabalena ematea da, horrela gurasoek aukera handiak dituzte. Familiari laguntza planean aipatzekoa da, amatasunari dagokionez, 11 hilabeteko baja daukatela eta gero ordutegi murrizketa nahi badute dirulaguntzak ere bai. Eskolan egun erdiz egoten dira haurrak, beraz, 16 urte bitartekoentzat zerbitzu publiko ugari daude gurasoen ordutegia osatzeko. Adinaren

arabera moldatzen dituzte zentro hauek eta era askotako beharrei erantzuten die. Halere ez zen zerbitzu kantitatea nabaritu izan zen bakarra. Hauen kalitatea ere nabarmendu zuen Izaskun Madariagak, izan ere espazio aberatsekin batera talde txikiak mantentzeari lehentasuna ematen bai diote Finlandiako sistemari. Hemen dago gakoa, Finlandiako haur-eskolen kalitatearen gakoa, alegia.

Ratio egokia mantentzea gauza klabea dela dio. Oiertzungo Partzuergoan ere apustu hori egina dute. Ez dute Finlandian duten aberastasuna baina bai ordea legeak gehiago bezala markatzen duena baino hobekia.

Euskal Autonomi Erkidegoan, 0 eta 1 urte bitarteko haurren ratioa 8 haurretakoa da. Hau da, irakasle bakoitzak, gehienez adin horretako 8 haur eduki litzake. Urte batetik bi bitartekoak 13, eta 2-3 bitartekoak 18 (Estatu mailan 20 arte). Izaskunen ustez, honekin ez da kalitatea bermatzen. Ezinezkoa da ratio hauekin haurra behar den bezala hezte, behar duten arreta eskaintzea eta beharrezko duten dedikazioa ematea. Finlandian ikusitakoa beraz eredu izaten jarraituko du denbora luzean.

### **Oiertzungo Haur Eskola: heziketaren garrantzia**

Izaskunen ustez, 0tik 3 bitarteko haurren heziketaren nondik norakoak ulertzea zaila da, horregatik *zaindu* eta *hezi* erraz nahasten diren bi kontzeptuak dira. “Gu ez gara zaindaria, hezitzaileak gara”. Irakaskuntzako beste irakasleek bezala, hauek ere irakasle formakuntza dute. Ezberdintzen diren bakarra haurren adina da. “Oso adin polita da, satisfakzio asko ematen duena baina baita ere konpromiso handikoa. Haurrek gaitasun handiak dituzte eta gure lana da horiek behar bezala kanporatzen laguntzea. Haurra eskubideak dituen pertsona bat dela onartu behar dugu eta eskubide horien artean heziketaren eskubidea dago”.

Eskubide hau askoren artean erantzun beharrekoa dela dio, eta eginkizun honetan eskola eta familia uztartzea ezinbestekotzat jotzen du Izaskun Madariagak. Horretarako, haur eskolako langileek, garrantzi handia ematen diote gurasoekiko harremanari. Eta baita langilea beraren formazioari ere, etengabeko ikasketa prozesua eta egunez eguneko berrikuntzei irekiak egon behar dutela alegia: “Zenbat eta txikiagoa haurra, orduan eta irakasle prestatuagoa behar da”, dio Izaskunek, izan ere, haurra horrek adin txiki horretan jasotzen duen formazioak bere etorkizunerako izango duen eragina ikaragarria da. Eta hori ez da horrela ulertzen gizarrean.

Hori dela eta Izaskunek Partzuergoaren garrantzia azpimarratu zion: “Proiektu serioa da, urte askoz lan honetan aritu garenak elkartu gara eta Haurtzaro Ikastolarekin bat egitea guretzat oso lagungarri izan da. Egiten dugun lanari proiektio handiagoa ematen diogu. Kate bat gara, gu hasten gara baina horren jarraipenean ere eragina eta zeresana badugu. Ikastolan lan-ekipo oso onarekin aurkitu gara eta inplikazio ikaragarria izan du Partzuergoaren behar den moduan jartzeko garaian. Benetan, herrira begira dagoen ikastola batekin egin dugu topo, sinistu dute proiektuan eta testuinguru horretan gauzak ongi egin eta aurrera egitea errazago izan da”.

### **Udal Haur Eskola helburu**

Hasieran aipatu dugun bezala, ‘Infancia’k antolatutako bidaia hauen helburuetako bat, tokian tokiko administrazioen planteamendua ezagutzea ere bada. Finlandiari dagokionez, lehen aipatutako haur-eskolak eta zerbitzuak udaletxeen esku daude guztiak. Hemen, Jaurkitzekin egin asmoa duena ildo beretik doa, alegia, udal

haur-eskolak bultzatzea. Eredu bezala bat datozela esan daiteke baina desberdintasun handiak daude. Hango eskolak gureak baino hiru aldiz garestiagoak izan arren (askoz ere irakasle kopuru gehiago dutelako ikastetxeetan), gurasoek ordaintzen dutena gutxiago da. Administrazioak diru asko jartzen du, hemengo administrazioak baino gehiago. Eta gainera guztiak jartzen dute, ez hemen bezala, tokian tokiko udaletxearen baitan dagoela haur-eskolarako dirua jartzea ala ez.

Oiartzunen zentsu horretan suerte handia daukagula dio Izaskunek. Udalak kopuru handi batean eusten dio Partzuergoari, beti ere Jaurlaritzak dirua noiz askatuko duen zain. Hala ere badirudi erreleboa iritsi dela. Haur-eskola erregulatuko duen 0-3 Dekretua dela medio, finantziario portzentaia erabat aldatuko da. Gurasoek gutxiago jarriko dute, Udalak askoz ere gutxiago eta Jaurlaritzak, aldiz, gehiago, ezinbestez.

Izaskun Madariagak aipatu digunez, Udal eskolak toki askotan bultzatu dira eta eredu bezala interesgarria da oso. Herritarretik hain gertu dagoen administrazioak errazago egin dezake bat herritarren beharrekin. Europa iparraldean izan ezik, beste lurralde askotan dago frogatua udal eredu (Italiako iparraldea kasu). Konstante bat da, kalitatearen konstante bat ere bai eta sentsibilitate berezia azaltzen dute horrelako inbertsioa egiteko prest dauden politikoei.